



## FOTOKIMIOTERAPIA ANBULATORIOA (PUVA)

### JARRAITU BEHARREKO ARAUAK:

- Kapsulak (OXSORALEN) saioa jasotzera joan baino bi ordu lehenago hartuko dituzu, betiere nahikoa janda (ogitartekoak, gailetak, frutak eta abar) eta esne-edalontzi batekin, inoiz ez ezer gabe edo urarekin.
- Kapsulak hartu eta hurrengo 24 ordutan derrigorrezkoa da betaurrekoak erabiltzea (posiblea balitz komenigarria izango litzateke 48 orduz izatea betaurrekoak jarrita). Betaurreko horiek optika batean erosi behar dituzu eta ezaugarri hauek izan behar dituzte:
  - Babes-espektroa: UV erradiazioa eta argi ikusgaia.
  - Komenigarria litzateke aldeko eta goiko babesa izatea.
- Betaurreko horiek etxe edo lantokiaren barruan eta kanpoan eraman behar dira eguzkitik babesteko –zuzena zein zeharkakoa- edo bizi edo lan egiten duzun lekuko argi artifizialetik babesteko (argi halogenoa, fluoreszenteak eta abar).
- Ez jarri eguzkiaren eraginpean zuzenean edo leiho baten beiraren bidez tratamenduak irauten duen bitartean.
- "Bakar-bakarrik" emango dituzu medikuak agindutako pomadak edo kremak, berak esaten dizun moduan eta maiztasunarekin." (Ez eman bestelako kremarik, ezta noizbait errezetatuak izanik ere).
- Bestelako medikazio bat erabili baino lehen, galdetu mediku arduradunari tratamendu horretaz; bestela, fotokimioterapiaz arduratzen den erizainari.
- Ugaltzeko adinean dauden emakumeek tratamenduak iraun bitartean haurdun geratzea saihestu beharko dute.
- Tratamenduak iraun bitartean ez duzu apiorik, perrexilik eta ezta txiribirik jango.
- Krema eta lozio hidratatzailea maiz erabiliko dituzu, tratamenduak sor dezakeen lehortasuna saihesteko.

### INFORMAZIO OSAGARRIA:

- Fototerapiako saioak astelehenetik ostiralera izango dira, goizez.
- Klaustrofobiarik baduzu (beldurra leku itxiei: igogailuak, hegazkinak eta abar, jakinarazi unitateko medikuari edo erizainari.
- Fototerapiako kabinan zauden bitartean, ez duzu jantzirik eramango azpiko arropa izan ezik eta ezta osagarririk (kateak, eraztunak, belarritakoak eta abar).
- Arren eskatzen dizugu programatutako ordutegia betetzeko.
- Fototerapiako Unitatearekin harremanetan jarri behar bazara, deitu 945.00.75.78 telefonora.

## HITZORDUA ETA PRESKRIPZIOA

- **PAZIENTEA:**.....
- Egun hauetan:..... ordutan etorriko zara fototerapiara.
- Zure Psoraleno dosia hau izango da: ..... 10 mg-ko OXARALEN® kapsula.
- Medikamentu hau kontraindikaturik dago haurdunaldian. Egoera horren aurrean, utzi tratamendua berehala eta abisatu ahalik eta lehenbailehen.